

IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAN URAREN ZIKLO INTEGRALA KUDEATZEA ARAUTZEKO ORDENANTZA ALDATZEKO PROIEKTUA EGIN AURRETIKO HERRI- KONTSULTA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Aurrekoa betetze aldera, eta aldaketa egin aurretik, lehenago aipatu den ordenantza aldatzeko proiektuari buruz alderdi hauek planteatzen dira:

a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

Proposamen honen helburua da ordenantzaren testua egokitzea urrutiko kontagailu-irakurketaren edo teleirakurketaren erabilerara, IM eta IZSAren Plan Estrategikoak jasotzen baitu sistema hori progresiboki hedatzen joatea IZSAren kontagailuen parkean.

Ur-kontagailuen teleirakurketarako sistema bat hartzeak berekin dakar, alde batetik, kontsumoak neurtzeko ekipoak komunikazioen sare batekin integratzea informazioa igortzeko eta, bestetik, bat-bateko harremana erabiltzaileekin, eta alderdi horiek jasota gelditu behar dute hornikuntza-zerbitzua ematea arautzen duen testuan.

Teleirakurketako kontagailu elektronikoak kokatzeak aldaketa dakar kontagailu bat instalatzeko moduan, kontagailu hori jarrita gelditzeaz gain, telekomunikazioen sare bati konektatuta eta aktibatuta gelditu behar baitu, ur-kontsumoen berri eman ahal izateko. Kokatzea ezin da banandu komunikazioen zerbitzu batean integratzen. Hain zuzen, lan horiek ez daude instalatzaile guztien eskura eta horregatik nahi da ekipo horiek muntatzea eta abian jartzea IZSAren konturakoa izatea.

Halaber, kontagailu elektronikoaren merkatua ez da heldua oraindik, eta ez du nahiko zabala den eskaintza, eta, horrenbestez, gerta liteke zenbait instalazio-enpresak zailtasunak izatea neurketa-ekipo batzuk erosteko. IZSAk, ordea, errazago eskuratu ahal ditu, helburu horretarako kontratu bat lizitatu baitu.

Proposatzen den eguneratzeak arautzen du:

1. Teleirakurketako kontagailuak kokatzea eta abian jartzea.
2. Fakturatzeko kontsumoak zehaztu eta erabakitzea.
3. Testuan detektatutako akatsak zuzentzea.

b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.

Kontagailuen teleirakurketa-sistema hartzeak berekin dakar hornikuntza-zerbitzua ematean aldaketa, ordenantza bidez araututa dagoen zerbitzua. Horrenbestez, aldaketa hori uraren ziklo integrala arautzeko ordenantzaren barnean sartu behar da.

c) Arauaren helburuak.

1. Urrutiko irakurketarako edozein kontagailu elektronikoren instalazioa IZSAk egingo duela erabakitzea.
2. Fakturaziorako kontsumoak zehaztearen barnean sartzea teleirakurketako sistemaren bidez irakurtzea kontagailuak.
3. Aurretik egin izan diren aldaketatik datozen akatsak zuzentzea ordenantzaren testuan.

d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Uste da ez dagoela proposatutako aldaketen edukia islatzeko beharra bete dezakeen beste aukerarik, ez eta aplikazioari segurtasun juridikoa emateko beharra bete dezakeenik ere.

Ordenantza batean agertzeko beharrak berekin dakarren arauzko ahalmenaren bidez egin behar da tokiko erakundeek gai edo arlo hau arautzeko beharrezkoa den garapena; izan ere, herritarrekiko harremanak arautzea baita asmoa, uraren ziklo integraleko zerbitzuei dagokienez, horrenbestez, pertsonen aniztasun mugagabea izanda hartzaileak eta geroko eta segidako aplikazioak egiteko modukoa izanda.

Herri-kontsultaren hartzaileak:

- Iruñerriko herritar guztiak.
- Kontsumitzaileen elkarteak.
- Enpresa sustatzaileak/eraikitzaileak.
- Elkargo profesionalak (arkitektoak, arkitekto teknikoak, industria-ingeniariak, ingeniari agronomoak, finka-administratzaileak, higiezin jabetzako agenteak).